

# AURTEN, OPARITU BIZIA

Abenduak 19, ETB Maratoia

Organo-emate eta transplanteen  
ikerketaren alde

Egin zure ekarpena

☎ 902 54 25 25

[www.eitb.com](http://www.eitb.com)

eitb  
maratoia



## ELKARTEAK 2013

Atcore – Alcer – Renacer/Birjaio – Egute - Iturrigorri

## ELKARTEAK

**ATCORE <http://atcore.trasplanteseuskadi.org/>  
Euskadiko bihotz eta biriketako gaixo eta transplantatuen elkarte**

**ATCORE** 1995ean sortu zen, eta harrezkero lan eskerga egiten ari da, elkarteko kideen arazoak kudeatzen eta organo-emaile berriak erakartzen. Gaur egun, 90 bazkide ditu eta egoitzak Bizkaia eta Araban.

Halaber, hainbat gaitan **adituak diren profesionalak** elkartearen esanetara lan egiten dute, eta horien egiteko nagusia Elkarteak bere bazkideentzat antolatzen dituen ekintza eta jardueretan kolaboratzea eta laguntzea da:

- \*Psikologia
- \*Aholkularitza juridikoa
- \*Hitzaldiak- Solasaldiak
- \*Gaixoentzako arreta zerbitzua
- \*Borondatezko gizarte-lanak

Ondoko hauek dira elkartearen **helburuak**:

- Bihotz eta birikako gaixo eta transplantatuei berezkoak zaizkien arazoei erantzuna ematea.
- Elkarteko kideei, eta oro har herritar guztiei, bihotz eta birikako gaixotasunei buruzko informazioa ematea, gaitz horiek prebenitzeko eta errehabilitazioan laguntzeko.
- Arrisku-faktoreen eta gaixotasunari aurre egiteko baliabideen berri ematea.
- Bihotz eta birikako gaixotasunen tratamenduen eta transplanteen inguruko aurrerapen zientifikoei buruzko informazioa lortzea, eta ahal dela, gaixoen interesak babestea, gure beharrei erantzungo dieten aurrerapenei lagunduz.
- Itxarote-zerrendan dauden gaixoei laguntza morala eta fisikoa ematea.
- Mota guztietako jarduerak antolatzea, organo eta ehunak, batez ere bihotz eta biriketakoak, emateari buruzko informazioa eman eta zabaltzeko.
- Elkarteko kideen arteko bilerak sustatzea, bihotz edo birikako gaitzak izateak dakartzan arazo psikologikoak eta lan-arlokoak ezagutzeko.
- Elkartearen helburuekin bat egiten duten erakunde ofizial edo partikularrekin lan egitea.

<b>ALCER</b> <a href="http://alcer.trasplantesuskadi.org/">http://alcer.trasplantesuskadi.org/</a> <b>Euskadiko Giltzurruneko Gaixoen Elkarte</b>		
<b>ALCER BIZKAIA</b> <a href="http://www.alcerbizkaia.com/">http://www.alcerbizkaia.com/</a> <a href="http://alcerbizkaia.blogspot.com.es/">http://alcerbizkaia.blogspot.com.es/</a> <a href="https://es-es.facebook.com/ALCERBizkaiaBilbao">https://es-es-facebook.com/ALCERBizkaiaBilbao</a>	<b>ALCER GIPIZKOA</b> <a href="http://www.alcergipuzkoa.org">www.alcergipuzkoa.org</a>	<b>ALCER ARABA</b> <a href="http://www.alceralava.org">www.alceralava.org</a>

**ALCER Giltzurruneko Gaixoen Elkarte da, eta egoitzak ditu Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian. 1977an sortu zen, eta irabazi asmorik gabeko eta onura publikoko elkarte da.**

Giltzurruneko gaixo kronikoen eta euren familien bizi-egoera hobetzea du helburu. Horretarako, laguntza-zerbitzuak eskaintzen ditu, gaixoen ongizate fisiko, psikiko eta sozialaren osagarri gisa eta, gaixotasun kronikoaren prozesuan, giltzurrun-gutxiegitasuna duten gaixoen eta euren familien bizi-kalitate hobetzeko.

Gaur egungo egoerara iristeko funtsezkoa izan da, eta hala izaten jarraitu behar du, antolatu diren ekintza guztietan parte hartu duten giltzurruneko gaixo, euren familia eta ALCER elkarteko kolaboratzaile eta profesionalen ilusioa.

**Hona hemen elkarteak eskaintzen dituen laguntza-zerbitzuak:**

- \*Laguntza eta arreta psikologikoa, banakako laguntza.
- \*Laguntza soziala, familiarentzako atsedena
- \*Dieta eta nutrizio-aholkuak
- \*Hemodialisirako txanden kudeaketa
- \*Elkartze-zerbitzua
- \*Ospitaletik urrun bizi diren gaixoentzako etxebizitza
- \*Ordu alaia: gaixoentzako terapia, antzezlan bat egitera bideratutakoa. (Alcer Bizkaia)
- \*Ikastaroak: informatika, gimnasia, tai chi, etab. (Alcer Araba)

**Berezitasunak:** ALCER Gipuzkoak Donostiako Ospitalean Laguntza psikosozialeko zerbitzua eskaintzen duen elkarte bakarra da, ospitaleko nefrologia zerbitzuarekin, dialisiko unitateekin eta osasun eta gizarte-zerbitzu komunitarioekin koordinatuta. Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa daukaten Gipuzkoako gaixo guztientzako erreferentziazko ospitalea da Donostia Ospitalea. 2012an, Alcer Gipuzkoaren eginkizun sozial honen hartzaileak 980 gaixo izan ziren. Alcer Bizkaia, bestalde, 800 bazkide ditu, eta Alcer Arabak 250.

Birjaio elkarte Bizkaian sortu zen 1997an, gibelesko gaixo eta transplantatuen talde gero eta handiago baten beharrei erantzuteko. Gaur egun, 116-120 kide inguru ditu elkarteak, eta gibelesko gaixoei, euren familiei eta transplantatuei egiten die arreta. Elkartearen lokalean horri guztiari buruzko triptikoak daude eskuragarri.

Bizkaian sortu bazen ere, elkartearen jardute-eremuak Euskal Autonomia Erkidego osoa hartzen du, eta bi jarduera-arlo hauetan jartzen du arreta: batetik, gibelesko gaixo eta transplantatuen berezko arazoei erantzutea; eta bestetik, organo-ematea sutatzea.

Halaber, Espainiako gibelesko gaixo eta transplantatuen federazioaren kide dira.

#### **Helburuak:**

- Gibelesko transplantatuei laguntza medikoa eskaintzea, baita gizarte, lan eta lege-arlokoa ere. Izan ere, elkarteak hitzarmenak ditu abokatu eta psikologoekin. Abokatuak, esate baterako, transplantea burutu baino lehen eman beharreko urratsen berri ematen diete bazkideei.
- Transplantatuen aldeko iritzi publikoa sustatzea, erabat gizarteratu daitezten.
- Zuzenean edo zeharka, elkartearen helburuekin bat egiten duten erakunde publiko eta pribatuekin lan egitea.
- Ikerketa sustatzea, gibelesko transplantatuekin loturiko alderdi guztietan. Ahal den neurrian, transplantearen itzarote-zerrendan daudenei laguntza ematea.

#### **Jarduerak**

- Urtero, gibelesko gaixo eta transplantatuentzako jarduerak antolatzen dituzte; hitzaldiak, esate baterako. Erizain eta dietalariak izaten dira hitzaldi horietan, eta elikadurari buruzko zalantzak argitzen saiatzen dira, besteak beste.
- Transplantatuen gainerako elkarteekin batera, organo-emaeleak lortzeko mahaiak jartzen dituzte merkataritza-guneetan edo kalean. Jarduera hori organo-emaelearen egun nazionalean egin ohi da, ekainaren hasieran. Bada, organoak ematearen garrantzia agerian jartzea da helburua, eta horren inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzea. Aurten, Portugaleteko Ballonti merkataritza-gunean jarri da informazio-mahaia, ekainaren 6, 7, eta 8an, hain zuzen ere.

## **EGUTE**

### **Hezur-muineko transplantatuen eta gaixo hematologikoen elkarte**

EAEko hezur-muineko transplantatuak eta gaixo hematologikoak batzen dituen elkarte da. Bizkaian sortu zen 1999an, eta gaur egun, 12 kide ditu.

Gaixoei eta familiakoei laguntza eskaintzen die, medikuntza eta lan-arlokoa batik bat, eta osasun-zentroekin eta transplanteen gainerako elkarteekin harremanetan egoten saiatzen dira. Elkartearen presidentea bera, Bittor Bilbao, leuzemiak jota egon zen. Hezur-muina transplantatu zioten eta gaixotasuna gainditzea lortu zuen.

## **ITURRIGORRI**

### **Hezur-muin emaleen elkarte**

Iturrigorri 2007an sortu zen, hezur-muina ematea sustatzeko eta horri buruzko informazioa emateko helburuarekin.

Elkarteak hamabost bat bazkide sortzaile ditu eta 50 bat boluntario. Hezur-muineko transplantea behar duten pertsoneri laguntzea du helburu.